

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko martxoaren 11

33. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak osoko zuzenketa ezetsi du (3. or.).
- Foru Lege proiektua, ezartzen duena nola banatu transferentzia arrunten bidez toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa. Osoko Bilkurak osoko zuzenketa ezetsi du (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).
- Foru Lege proposamena, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (5. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, gazteentzako etxebizitzaren alorreko politikari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak premiatzen du ez energia nuklearra ez gasa ez daitezen har energia berde bezala. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jardun iraunkorreko programa bat landu dezan, Foru Komunitateko ospitale publikoetan kultur ekintzak egitekoa, ongizate emozionalarentzat neurri onuragarriak diren aldetik. Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztu du (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan atletismoko pista estali bat eraikitzeko proiektua bultzatuz dezan. Kultura eta Kirol Batzordeak onetsia (9. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan, albait lasterren jarri ere, musikaren arloko profesionalendako laguntza zuzenen lerro bat, eta sektorearen jarduera berma dezan. Kultura eta Kirol Batzordeak onetsia (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Iruñeko espetxean mediku eta erizain berariazkoek duten arreta-ordutegiari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).
- Galdera, psikiatra batek, psikologo batek eta osasun mentaleko erizain espezialista batek osatutako talde bat Iruñeko espetxeko osasun arretara gehitzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Iruñeko espetxeko presoek osasun arretan izandako eta izanen diren hobekuntzei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or.).
- Galdera, mediku erretiratuen kontratazioei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (12. or.).
- Galdera, bularreko eta koloneko minbizien baheketa-programetan izandako atzerapenei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialaren patioan eginiko pintadei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren zenbait telefonotan artatu gabeko deiei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (14. or.).
- Galdera, eutanasia arautzen duen maiatzaren 24ko 3/2021 Lege Organikoak aipatzen duen objektoreen erregistroa sortzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko martxoaren 3an egindako bileran, ezetsi egin du Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETA EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko martxoaren 3an egindako bileran, ezetsi egin du Nafarroako Foru Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuari Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztutako osoko zuzenketa.

Horrenbestez, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 132.5 artikuluan xedatuarekin bat, proiektua Lurralde Kohesiorako Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, ezartzen duena nola banatu transferentzia arrunten bidez toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa.

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETA EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko martxoaren 3an egindako bileran, ezetsi egin du Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztutako osoko zuzenketa, toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa transferentzia arrunten bidez nola banatu ezartzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztutakoa.

Horrenbestez, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 132.5 artikuluan xedatuarekin bat, proiektua Lurralde Kohesiorako Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko martxoaren 3an egindako bileran, erabaki zuen Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Foru Lege proposamen hori Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Podemos-

Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten, eta 2022ko urtarrilaren 28ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2022ko martxoaren 3an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Foru Lege proposamen hori Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten, eta 2022ko urtarrilaren 28ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-22/PRO-00001).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean

sustatzeko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Bartzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat hasiko da, 2022ko apirilaren 4ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, gazteentzako etxebizitzaren alorreko politikari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea gazteentzako etxebizitzaren alorreko politikari buruz Ángel Ansa EcheGARAY jaunak aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa EcheGARAY jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan xedatuaren babesean, gazteentzako etxebizitzari buruzko interpelazio hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako gazteek emantzipatzeko benetako zailtasunak aurkitzen dituzte. Halatan, interesgarria da jakitea zer neurri abiaraziko duen Gobernuak gai horren inguruko gaurko egoera aztertzeko eta identifikatzeko, eta hura hobetuko duten ekintzak planteatzeko.

Iruñean, 2022ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa EcheGARAY

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak premiatzen du ez energia nuklearra ez gasa ez daitezen har energia berde bezala.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak premiatzen baitu ez energia nuklearra ez gasa ez daitezen har energia berde bezala.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Geroa Baik beti azpimarratu du Europa eraikitzeke prozesuan erregioek burutu behar duten papera —paper aktiboa, garrantzitsua—. Ibilbide horretan Nafarroak egile nagusia izan behar du eta bere papera jokatu. Bere gidoirik ez duen ikusle hutsa izan gabe.

Hori izan da beti gure helburuetako bat. Europazaletasun zintzoa, baina parte-hartzailea, inoiz ez pasiboa.

Halaxe frogatu genuen egintzen bidez joan den legegintzaldian, aldatetaren legegintzaldian, gure erkidegoak Bruselan duen bulegoa berriro irekiz, Nafarroako benetako enbaxada izateko ikuspegiarekin, eta Akitaniarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin eratutako Euroeskualdean sartuz.

Ez zaigu arrotz, eta ez zaigu izan behar, Europako erakundeetan erabakitzen diren gai ekonomiko, sozial edo politikoetatik bat bakarra ere.

Europako taxonomia dugu ingurumenaren aldetik jasangarriak diren jarduera ekonomikoak sailkatzeko sistema bat, halakotzat jotzen ahal diren guztiak identifikatzen dituen, bai eta jotzen ezin direnak ere. Era horretan bilatzen da inbertitzaileek definizio baliagarri bat izan dezaten, jarduera jasangarrietan inbertitzerakoan segurtasun handiagoa bermatuko diena.

Baina duela gutxi Europako Batzordeak proposamen bat aurkeztu du, taxonomian, alegia, ingurumenaren aldetik jasangarriak diren jardueretan, energia nuklearra eta gasetik datorrena sartzeko,

energia “berde” gisa. Proposamen horren atzean Frantzia eta Alemania bezalako herrialdeen interesak ezkututzen dira.

Zalantzarik gabe, desadostasun osoa erakusten du Europako Itun Berdearekiko eta kontinentearen deskarbonizazioranzko ibilbidearekiko, helburu argiak betez jada ezarri eta onetsi den egutegi batean.

Gainera, prozesu horretan atzerapauso larria da, Batasuneko herritar guztiendako mezu guztiz kontraesankorra, atxikimendu eza ekar lezakeena, klima-aldaketaren aurkako borrokan eta, beraz, gure planetaren biziraupenean hain erabakigarria den gai batean.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak premiatzen du ez energia nuklearra ez gasa ez daitezen har energia berde bezala eta, ondorioz, ez Europako taxonomia delakoan sartzeko gai ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, lanean jarrai dezan energia-mix bat ezartzeko, Nafarroan ekoiztutako energia berriztagarrietan oinarritua, energia-jasangarritasuna eta prezioen egonkortasuna bermatuko dutenak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen ditu, behar diren plan eta estrategiak ezar ditzaten, bermatze aldera ekonomiaren deskarbonizaziora eramanen gaituen energia trantsizioa alderdi sozialetan justua izanen dela eta etorkizuneko belaunaldiei begira ez duela ezbaian jarriko ongizate estatu oso bat.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jardun iraunkorreko programa bat landu dezan, Foru Komunitateko ospitale publikoetan kultur ekintzak egitekoa, ongizate emozionalarentzat neurri onuragarriak diren aldetik.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da jardun iraunkorreko programa bat landu dezan, Foru Komunitateko ospitale publikoetan kultur ekintzak egitekoa, ongizate emozionalarentzat neurri onuragarriak diren aldetik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jardun iraunkorreko programa bat landu dezan, Foru Komunitateko ospitale publikoetan kultur ekintzak egitekoa, ongizate emozionalarentzat neurri onuragarriak diren aldetik.

Artearen eta ongizate emozionalaren eta fisikoaren arteko lotura ez da batere berria. Osasunaren Mundu Erakundearen Europarako Eskualde Bulegoak bere azken txostenean artea eta kultura osasun laguntzan sartzeko gomendioa egiten du. Ez da norabide horretatik doan jarraibide bakarra;

Norvegiako Zientzia eta Teknologiako Unibertsitateko ikertzaileek, 20 urtetik 80ra bitarteko 50.000tik gora helduren laginarekin, frogatu zuten jarduera kultural guztiak eragin positiboa dutela bizitzarekiko gogobetetasunean, depresio eta antsietate mailetan eta osasun onean.

Azterlanak bat datoz esatean jarduera kulturalak bizialdia luzatu, gizarteratzea hobetu eta parte-hartze soziala areagotu ahal duela. Gainera, osasun mental eta fisikoaren egoera onaren adierazlea da.

OMETik bertatik adierazten da arteek konponbide batzuk eskaini ahal dituztela, jardun mediku arruntak orain arte eraginkortasunez gauzatu ezin izan dituenak. Halaber, gobernuei dei egiten die jarduketa protokoloak ezar ditzaten, osasun sistemen eta inguru artistikoaren arteko harremanaren mesederako.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

– Jardun iraunkorreko programa bat lantzea, Nafarroako ospitale publikoetan kultur ekintzak egitekoa, ongizate emozionalarentzat neurri onuragarriak diren aldetik.

– Jarduera kulturalen plan bat prestatzea, bereziki Nafarroako ospitaletako pediatria unitateetan ingresatuta dauden haurrei zuzenduak.

– Ospitale eta osasun arloko guneak jarduketa artistikoekin gaitzea, gune gizatiarragoak eta beharizan emozionaleri egokituagoak izan daitezzen.

– Oinarrizko Osasun Laguntzatik “errezeta kulturala” ezartzea, jendearen oreka eta osasun mentala errazteko tresna gisa.

Iruñean, 2022ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan atletismoko pista estali bat eraikitzeko proiektua bultzatzen.

KULTURA ETA KIROL BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kirol Batzordeak, 2022ko martxoaren 2an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan atletismoko pista estali bat eraikitzeko proiektua bultzatzen”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du al bait lasterren abiaraz ditzan Nafarroan atletismoko pista estali bat eraikitzeko izapideak, hartara beteko baitira Nafarroan beharrezkoa den premia bat nahiz Nafarroako Parlamentuak 2019ko abenduan adierazitako borondatea”.

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan, al bait lasterren jarri ere, musikaren arloko profesionalendako laguntza zuzenen lerro bat, eta sektorearen jarduera berma dezan.

KULTURA ETA KIROL BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kirol Batzordeak, 2022ko martxoaren 2an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan, al bait lasterren jarri ere, musikaren arloko profesionalendako laguntza zuzenen lerro bat, eta sektorearen jarduera berma dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Al bait lasterren abiaraz dezan musikaren arloko profesionalendako laguntza zuzenen lerro

bat, sektoreko profesional autonomoen, enpresen nahiz entitateen jarduera mantendu ahal izan dadin; izan ere, pandemiak eragindako krisitik heldu den diru-sarreraren jaitsiera dela-eta kolokan ikusi dute beren jarduera ekonomiko profesionalaren iraupena.

2. Ekitaldien plangintza bat taxutu dezan sektoreko eragileekin batera, egoera epidemiologikoa izan ditzakeen eszenatoki ezberdinetara egokitu, halako moduan non ekitaldi horiek beste guztiak, edukiera edo baldintza batzuetan egin ahal izanen baitira eta ekonomikoki bideragarriak izanen baitira sustatzaileentzat ere”.

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Iruñeko espetxean mediku eta erizain berariazkoek duten arreta-ordutegiari buruzkoa.*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Iruñeko espetxean mediku eta erizain berariazkoek duten arreta-ordutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2022ko otsailaren 28a

Zein da Iruñeko espetxeari arreta emateko mediku eta erizain berariazkoen arreta presentzialeko eta lokalizatuko ordutegia?

Izan al da aldaketarik Nafarroako Gobernuak espetxe-osasungintzari buruzko eskumena bere gain hartu zuenetik edo bere horretan jarraitzen du?

Nafarroako Gobernuak ba al du aldaketarik egiteko asmorik? Hala bada, zer aldaketa eta noiz?

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, psikiatra batek, psikologo batek eta osasun mentaleko erizain espezialista batek osatutako talde bat Iruñeko espetxeko osasun arretara gehitzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, psikiatra batek, psikologo batek eta osasun mentaleko erizain espezialista batek osatutako talde bat Iruñeko espetxeko osasun arretara gehitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean,

galdera hau aurkeztzen du, idatziz erantzun dakion:

Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean iragarri zuen psikiatra batek, psikologo batek eta osasun mentaleko erizain espezialista batek osatutako talde bat gehituko dela Iruñeko espetxeko osasun arretara

Dagoeneko gehitu al dira? Hala ez bada, noizko aurreikusten da gehitzea?

Lehendik ere espetxean arreta ematen zuen psikiatraz ari al zara? Hala bada, zehaztu lehenago zuen arreta ordutegia eta proposaturiko aldatetaren ondorengoa.

2022ko otsailaren 28an, zein da Iruñeko espetxean osasun mentaleko arreta ematen duten profesionalen arreta-ordutegia? Izan al da aldaketarik Nafarroako Gobernuak espetxe-osasungintzari buruzko eskumena bere gain hartu zuenetik edo bere horretan jarraitzen du?

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Iruñeko espetxeko presoan osasun arretan izandako eta izanen diren hobekuntzei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Iruñeko espetxeko presoan osasun arretan izandako eta izanen diren hobekuntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Espetxe-osasungintzaren eskumena bere gain hartu ondoren,

Nafarroako Gobernuak egin al du ezer Iruñeko espetxeko presoek osasun arreta hobetzeko? Baiezkoan, zehaztu zer hobekuntza egin den.

Nafarroako Gobernuak osasun arretari buruzko zer hobekuntza jarriko ditu abian Iruñeko espetxean legegintzaldia amaitu baino lehen? Zein da hobekuntza horien kronograma?

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, mediku erretiratuen kontratazioei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea mediku erretiratuen kontratazioei buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua aginturiko jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1.- 2021eko udan ordezkapenak egin zituzten mediku erretiratuen kopurua. Zehaztu ordezkapenarako kontraturiko mediku erretiratu bakoitzaren kontratu-egunak, guztira.

2.- Pandemiaren seigarren olatuan laguntza-jarduerarako kontraturiko mediku erretiratuen kopurua. Zehaztu pandemiaren seigarren olatuan kontraturiko mediku erretiratu bakoitzaren kontratu-egunak, guztira.

Iruñean, 2022ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, bularreko eta koloneko minbizien baheketa-programetan izandako atzerapenei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, bularreko eta koloneko minbizien baheketa-programetan izandako atzerapenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1.- Zenbateko atzerapena du une honetan bularreko minbiziaren behaketa-programak legegintzaldiaren hasieran aurreikusitako kronogramari dagokionez?

2.- Zenbateko atzerapena du une honetan koloneko minbiziaren behaketa-programak legegintzaldiaren hasieran aurreikusitako kronogramari dagokionez?

Iruñean, 2022ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialaren patioan eginiko pintadei buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialaren patioan eginiko pintadei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.


Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduaren 188. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Dokumentu honi atxikirik doazen argazkietan ageri dira Iruñeko Hizkuntza Eskolako ataria "apaintzen" duten zenbait irudi.



Gauzak horrela:

1.- Zer ekintza garatuko du Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Foru Komunitateko errealitate instituzionala islatzen ez duten pintadak direla-eta?

2.- Noiz egingen dira ekintza horiek?

Iruñean, 2022ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, Nafarroako Gobernuaren zenbait telefonotan artatu gabeko deiei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuaren zenbait telefonotan artatu gabeko deiei buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1.- Zer aurrerapen egin da 2021eko uztailaz geroztik Osasun Aholkuaren Zerbitzuko telefonotan, kutsatzeak miaztekoan, COVID-19aren aurkako txertaketarako telefonotan eta ordura arte call centerrik ez zuten Nafarroako osasun etxeetako ordua eskatzeko telefonoetan artatu gabeko deiak kontabilizatu ahal izateko?

2.- Osasun Aholkuaren Zerbitzuko telefonora, kutsatzeak miaztekoan, COVID-19aren aurkako txertaketarako telefonora eta ordura arte call centerrik ez zuten Nafarroako osasun etxeetako ordua eskatzeko telefonoetara egindako dei guztietatik, artatu gabeko dei kopurua eta artatutako deien ehunekoa, hilabeteka, 2021eko abuztutik 2022ko martxora.

3.- 112 telefonora egindako dei guztietatik, artatu gabeko dei kopurua eta artatutako deien ehunekoa, hilabeteka, 2021eko abuztutik 2022ko martxora.

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, eutanasia arautzen duen maiatzaren 24ko 3/2021 Lege Organikoak aipatzen duen objektoreen erregistroa sortzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, eutanasia arautzen duen maiatzaren 24ko 3/2021 Lege Organikoak aipatzen duen objektoreen erregistroa sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zortzi hilabete baino gehiago pasa dira Eutanasia arautzen duen maiatzaren 24ko 3/2021 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik.

Nafarroako Gobernuak sortu al du objektoreen erregistro bat, lege horren 16. artikuluan jasotzen den betebeharrari jarraikiz?

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

